

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERENTXUNGO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lehiaketa publikoa, VI-10076 ehiza barrutiko ehiza aprobetxamendua

Lehiaketa publikoa, "Erentxun" izeneko VI-10076 ehiza barrutiko ehiza aprobetxamendua, zeina Erentxungo jurisdikzioko lurrek osatzen baitute, eta zeinaren titularra, jabe taldearen ordezkari, Erentxungo Administrazio Batzarra baita, administrazio batzar horretan interesdunen eskura dauden baldintzen arabera.

Prozedura ireki bidezko lizitazio oinarria bi mila bostehun eta berrogeita bat (2.541,00) euro urteko da, BEZa barne, eta gehiago eskainiz hobetu ahal izango da. Gainera, 4 puntu emango dira gehienez, eta 3 puntu gehienez, tokiko ehiztariek ehiza barrutian parte hartzeko baldintzak.

Behin betiko bermea esleipen prezioaren ehuneko bost (% 5) izango da.

Ehiza barrutiko ehiza aprobetxamendurako errentamendu aldia hamar (10) urtekoa izango da.

Eskaintzak aurkezteko epea zortzi (8) egun naturalekoa izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

"Erentxun" izeneko VI-10076 ehiza barrutian ehiza aprobetxamendua esleitzeko, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak barrutia onartu behar du aurretik, dagokion foru agindua sinatuta.

Erentxun, 2021eko abuztuaren 10a

Lehendakari-erregidorea

JOSÉ JAVIER LEKUONA ARMENTIA